

«Artista batek nola lan egiten duen ikustea oparia da»

LEIRE IRURETAGOiena
ARTEAREN HISTORIA IKASLEA

Alkizako Ur mara museoan praktika-aldia ari da egiten ibartarra; museoaren «askatasuna» eta «gertuko harremana» nabarmendu du // 3

Bedaioko baserrietara Internet sarea iristeko diru laguntzak izango dituzte // 5

Haur, gazte nahiz helduei zuzendutako jarduerak Lizartzan, uztailean // 6



Atzo arratsaldean hasi ziren herritarrei PCR probak egiten Beotibar pilotalekuan. JOSU ARTUTXA

Herritarrak PCR probak egitera deitu dituzte Tolosan


Osasun sailak positibo eman dutenen inguruko pertsonekin zerrenda osatu duela esan du udalak; adinekoen egoitzetan eta eguneko zentroetan neurriak areagotu dituzte // 2



BERROBIN

BIZITZEN ARI GAREN GARAIETARAKO ETXEBIZITZA EZIN HOBEAK

TERRAZA ZORAGARRIAK, 2 ETA 3 LOGELAKO ETXEBIZITZAK, HERRI ERDIAN. BISTA EDERRAK. LASAIA ETA EGUZKITSUA



OTEGUI ERAIKUNTZAK
BIZKAI KALEA 2, BEHEA - TOLOSA
TEL. 943 67 21 72 - 608 77 28 01
otegui@oteguieraikuntzak.com

Herritarrei probak egiten hasi dira Beotibar frontoian

Tolosako erdigunean PCR probak egiten hasi ziren atzo arratsaldean; udalaren arabera, Osasun sailak positibo eman dutenen inguruko pertsonekin zerrenda osatu du eta horiek joan dira proba egitera

Erredakzioa Tolosa

Udalaren eta Osasun sailaren arteko harremana «zuzena eta estua» izaten ari dela jakinarazi zuten atzo, udaleko iturrietatik, azken egunotan herrian atzeman diren kasu positiboaren harira.

Atzoko 8 kasu berriekin, dagoeneko 22 pertsona dira COVID-19agatik positibo eman dutenak Tolosan. Eskualdeari dagokionez, Tolosakoez gain, 6 herritar dira kutsatu berriak; Zizurkilen 2, Ibarran 2, Villabonan 1 eta Lizartzan 1.

Udalak atzo onartu zuen etzira arte kontrolpean izan zela positibo eman duten herritarren taldea, «baina hedapena zabaltzen ari dela frogatu da». Udalak esan du positibo eman dutenekin harremanetan egon diren pertsonen zerrenda osatu duela Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak eta haiei proba egiteko Beotibar frontoia atondu zuten atzo. Udalaren arabera, Osakidetza zerrenda horretako pertsonen deitu zien atzo.

Ilara luzeak egin ziren eta ber-

tan batez ere, jende gaztea bildu zen. Horietako batek baino gehiagok esan zioten ATARIA-ri Whatsapp bidez iritsitako mezu bat medio joan zirela proba egitera. Mezuan Tolosako taberna jakin batean pasa den larunbatean egon zirenei anbulatoriora

Kasu positiboekin harremanetan egon diren herritarrei probak egiten jarraituko dute

deitzeko eskatzen zitzaien, PCR probak egiteko. Eta gazteetako batzuk behintzat horixe egin zuten atzo, arratsaldean Beotibarretik pasatzeko hitzordua jaso zutelarik.

LASAITASUNERAKO MEZUA

Protokoloa martxan jarri du Osasun sailak birusaren hedapena mugatu eta kontrolpean izateko, eta egunez egun datu berriak jakinaraziko direla esan du udalak. «Beharrezkoak diren PCR probak egingo dira kasu positiboekin harremanetan egon di-



Alondeg plazaan atzo arratsaldean hainbat herritarrek egin zuten ilara, PCR proba egin aurretik. J. ARTUTXA

ren herritarren artean», esan du Tolosako Udalak ohar batean.

Udaletik lasaitasun mezua helarazi nahi izan zaie herritarrei: «Kezkatuta egotea normala da eta zuhurtziaz jokatzeko ezinbestekoa, baina larrialdi egoerak ekidin behar ditugu. Egoera kontrolpean dago eta positibo eman duten pertsonen edota arriskuan egon diren emaitzak jaso bitartean etxean egon behar dute», azaldu du Olatz Peon alkateak. Gainerako herritarrei ere zuhurtziaz, arduraz eta elkartasunez jokatzeko jarraitzeko eskaera egin die.

MUSUKOA DERRIGORREZKOA

Nekane Murga Osasun sailburuak atzo jakinarazi zuenez 00:00etatik aurrera derrigorrezkoa da musukoaren erabilera. Igerilekuetan eta hondartzan, maskara jantzi beharko da, bainua hartzeko izan ezik. Kirola egiteko orduan edo naturguneetan ken daiteke. Maskaren erabileraz harago, udaletik gogorarazi dute behar beharrezkoa dela prebentzio neurriak errespetatzea, eskuak maiz garbitzea eta jende pilaketak ekiditea. «Guztion ardura da neurriak errespetatu eta kutsatze berriak ekiditea».

Neurriak areagotu dituzte adinekoen zentroetan

Erredakzioa

Maite Peña Gizarte Politikako diputatuak jakitera eman duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak Tolosako, Getariako eta Zarauzko adinekoen egoitzetako eta eguneko zentroetako talde arduradunekin koordinatuta, neurriak areagotu dituzte. Iurreamendi eta Uzturre eguneko zentroa ere itxi egingo dute aldi baterako. Bisitei dagokienez, diputatuak esan duenez, «prebentzio eta segurtasun neurri guztiak zorrotz» egin ahal izango dira.

Diputatuak gogorarazi duenez, Iurreamendi egoitzan, pasa den uztailak 6tik irteerak etenda daude, «bertan bizi baitira orain Ordiziako San Jose egoitzako erabiltzaile asko, birmoldaketa lanak egiten ari direlako han». Tolosako eta Zarauzko zentroetan etenaldiak «egoera epidemiologikoak

ahalbidetzen duenera arte» luza-tuko direla azaldu du.

Diputatuak gehitu duenez, «Goierriko eta Tolosako egoitzetan ez dago COVID-19rik», erabiltzaileei eta zentroetako langileei PCR probak egin ondoren. DYArekin lankidetzan, 940 PCR proba egin dituzte uztailaren 7an hasita, «Osasun Sailak Ordizian atzemandako COVID-19 agerraldia ezagutu ostean». Egindako proba guztiek emaitza negatiboa eman dute. Probak, besteak beste, Tolosako Iurreamendin eta Uzturren egin dituzte.

Peñak gogorarazi duenez, «detekzioan eta erantzunean azkartasuna ezinbestekoak dira birusaren hedapenari aurre egiteko», eta, gaineratu duenez, «neurrien helburua da birusaren eraginaren aurrean ahulenak diren pertsonen ongizatea zaintzen jarraitzea, ikusezina dena, azkar transmititzen dena eta oso gogorra adineko pertsonen artean».

IRAGARKI LABURRAK

Alokairua

Etxea alokagai. Pisua alokatzen da Tolosako Alde Zaharrean. Egoera oso onean dago eta altzariekin. Interesatuak deitu 677 000 005 zenbakira.

Lan eskaintza

Etxeko lanak. Etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. Interesatuak deitu 688 760 577 telefonora.

Entrenatzailea. Larraun pilota elkar-teak pilotako entrenatzaile lanpostua eskeintzen du. Urte osorako pilota monitorea behar dugu, aste osoko lanaldiarekin. Interesatuak idatzi larraunpe@gmail.com korreora uztailaren 18abaino lehen. Lanpostuari buruzko xehetasunak emailaz. **Zerbitzaria.** Zerbitzari bat behar da. Interesatuak deitu 647 446 363 telefono zenbakira.

«Beste harreman mota bat lantzen da Ur maran, gertukoagoa»

LEIRE IRURETAGOiena PRAKTIKETAN UR MARA MUSEOAN

Alkizan natura eta artea uztartzen dituen museoan praktika-aldia burutzen ari da Artearen Historia ikasten ari den gazte ibartarra; Besteak beste, espazioak erakusketako bisitak gidatuko ditu egunotan

Jon Miranda Alkiza

Gasteizen Artearen Historia ikasten du Leire Iruretagoienak (Ibarra, 1999). Erroman Erasmus programa egiten ari zela lehertu zen pandemia eta etxera itzuli behar izan zuen. Praktika-aldia egiten ari da Ur mara museoan.

Nola sortu zaizu aukera Ur mara praktika-aldia egiteko?

Aukera geneukan udan borondatezko praktikak egiteko. Umetan ikastolarekin hemen izanda nengo, ireki berritan, espazio hau 2011n ireki baitzuten. DBHn nengoela etorri ginen. Orduko oroitzenak neuzkan eta borondatezko praktikak egiteko aukera zegoela jakin nuenean Ibarra inguruan zein museo egon zitezkeen begira aritu nintzen. Segituan oso jator erantzun zidaten, lasai etortzeko. Animatu nintzen.

Pozik zaude egin dizuten harremanekin?

Bai, oso pozik. Artista batek lana nola egiten duen gertutik ikustea, opari bat da niretzat. Koldobika Jauregi eta Elena Cajaraville oso jatorrak dira, gertukoak, etxekoa banintz bezala tratatu naute lehenengo egunetik. Bisitak gidatuko ditut tarte honetan eta testuak nik nahi bezala prestatzeko askatasun osoa eman didate. Orduetegi malgua daukat gainera.

Gustuko duzu Artearen Historia ikastea?

Bai. Hirugarren maila egin dut eta laugarrena hasiko dut irailean. Erasmusa egiten egon naiz aurretik Erroman eta pentsamendua pixka bat aldatu zait, baina hala ere, gustatuko litzaidake arte komisariotzan espezializatzea, arte erakusketak eta kultur ekitaldiak antolatzen jardutea. Oraindik ez

dut argi. Udako praktika-aldi honen bidez kredituak lortuko ditut eta era horretara ikasgai bat baliotzeko aukera izango dut. Hala ere, aldi hau bereziki baliatuko dut lan munduari begira eskarmentua hartzeko eta ikasketa pertsonal gisa.

Zenbat denbora egongo zara Ur maran?

Abuztu erdialdera arte egongo naiz. Uztailean hasi nintzen eta hilabete inguru emango dut hemen.

Zertan ariko zara tarte honetan?

Berez, zeregin nagusiak museoan egiten diren bisitak gidatzea izango da. Gero katalogazioa egiten ere jardungo dut, bi biltegi dituzte arte lan pila batekin eta horiek sailkatu eta ondo jasotzeaz arduratuko naiz. Sare sozialak ere kudeatzen ditut eta webgunea berri-tzeaz arduratzen naiz. Baina, egia da, egunerokotasunean denetan laguntzen diedala. Gaur, adibidez, Elenak *Dantza* filmerako egin zituen bitxiak sailkatzen eta gordetzen aritu gara. Erakusketa bat antolatu behar dute eta Koldobikaren grabatuak markoan jarri genituen aurrekoan. Aparteko

lanak ere bertatik bertara ikusi ahal izan ditut, adibidez, eskultura bat zaharberritzen ari dira eta prozesua nola den ikusi ahal izan dut.

Noiz egingo dituzu bisita gidatuak?

Gaur dut aurrenekoa. Lehenik, Koldobikak erakutsi zidan museo, itzuli osoa egin genuen eta bannan-bana erakutsi zizkidan eskultura guztiak. Sinbolikoak dira eta lan bakoitzaren atzean dagoen esanahia azaldu zidan. Nik koaderno batean oharra hartu nituen gero bisita prestatzeko.

Zer da Ur mara museoaren bereizgarri nagusia?

Esango nuke ez dela museo kontentzional bat. Arte eta natura uztartzen ditu eta ardatz nagusia askatasuna da. Oso modu librean daude sakabanatuta artelanak. Gero azpimarratzekoa da sormenerako gune bat dela, espazio ezberdinak daude horretarako propio prestatuta. Esango nuke, baita ere, azpimarratzekoa dela, Koldobika eta Elena, biak artista eta intelektualak izanda, zeinen gertukoak eta umilak diren. Eroso sentiarazi naute lehenengo momentutik.

Gertuko museo bat dela esango zenuke?

Bai, beste museo askotan artelanak sakralizatu egiten dira. Idulki baten gainean, kristal baten atzean jartzen dira lanak, bisitariaren eta artelanaren artean distantzia dago eta arrotz sentitu daiteke jendea. Hemen, berriz, jendeak patxadaz ikusi dezake eskultura, buelta guztia eman diezaiokie eskulturari. Beste harreman mota bat da, gertuagokoa.

Gune esperimental bat da Ur mara.

Bai. Arte diziplina ezberdinak elkarrekin daude hemen. Koldobikak *performance* batzuk prestatzen ditu, musikari eta dantzariekin batera. Adibidez, Thoreau espazioa dago hemen filosofia-ri eta poesiari irekia. Ez da arte plastikoa soilik, zabalagoa da hemen egiten dena.

Gomendatuko zenieke herritarrei museo bisitatzea?

Bai, noski. San Telmo edo Tabakalera etortzen zaizkigu gogora museoak aipatzen zaizkigunean, eta gero, hemen, Alkizan horrelako aukera bat dugu. Ez zait iruditzen jendeak asko ezagutzen duenik. Pena da, merezi baitu.



J.M.



1 TXINDOKIKO ITZALA abentura parkea

Bi lagunentzako
bina sarrera

628 947 253 • 943 654 757
ABALTZISKETA

www.txindokikoitzala.com/eu • info@txindokikoitzala.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



harpidedun izateak badu saria zozketa

2 LEARTIBAI ONDAREAREN kalitatezko kontserba eta produktu sorta

Laneko Koop. Elkarte
Okamikako industrialdea, 2 5 A
48289 GIZABURUAGA
94 684 20 26
www.bbkazoka.eus/eus/kolekzioak/laneko
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



3 IZASKUN JATETXEA

Bi lagunentzako
asteburuko menua

Ibarrako Izaskun
mendian kokatuta
943 67 50 17
Facebook eta Instagram: izaskun.jatetxea

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



Belauntzatik Leabururako ibilbidea da gaurko proposamena; Belauntzako autobus geltokitik abiatuko da ibiltaria eta modu erraz eta erosoan egin ahal izango du bidea

Paseotxoa bi herriren artean

Iñigo Terradillos Gaztañaga

Biltzea bezalakorik ez omen dago osasunerako. Ez alferrik, eguneroko paseotxoa gomendatzen du sendagile orok, batez ere adin batetik gorako pertsonentzat. Bakarrik, nahiz konpainian, hirigunean ala landa eremuan, musikaren edota irratiazen doinuekin... Gure aisialdian ibilian aritzeko aukerak amaigabeak dira, pertsonen gustuen arabera, hain justu, eta gorputza zaintzeaz gain, gure begien aurrean bistaratu ko diren milaka ikuspegiekin gozatuz erlaxatzea ere lortuko dugu.

Hori da hain justu, **TOLOSALDEKO ATARIA**-k azken asteetan eskaini nahi izan duena, astero-astero argitaratutako ibilbideekin. Eta ikasturteko azken aleetan ere proposamen gehiago egingo ditu. Gaurkoan Belauntzatik Leaburura bitarteko ibilbidea egitera gonbidatuko ditu ibiltariak.

BELAUNTZATIK

Belauntzako autobus geltokian ekingo diogu ibilbideari. Gure asmoa Leabururaino joan-etorria egitea da. Eguraldi bikaina dugu garai honetan eta eguzkiaren printzek goialde horretan dabilen haize finarekin bikote zoragarria osatzen dute.

Leabururantz doan errepidean gora egingo dugu, eta segituan eskuinera hartuko dugu, Belauntzaren herrigunera doan bidea, hain zuzen. Bertara iritsi aurretik, jolaslekua ikusiko



Belauntzatik Leabururako bideak ikuspegi ederra eskainiko dio ibiltariari. I.U.



dugu gure eskuinean. Oso hedadura txikikoa da erdigunea, parroki-elizaren inguruko etxe bakar batzuetara mugatzen dena.

San Joan Batailatzailearen parroki-eliza da herriko elementurik adierazgarriena. Ez da neurri handikoa, gurutze latindarreko oinplanoa du, gurutzeriazko gangek osatutako estalkiak eta dorrea oinpean. Arkupea dagoen lekuan arku zorrotzeko ate ederra ikus daiteke.

Parroki-elizaren parean, bestalde, udaletxea dago. Oso erraz antzematen zaio udaletxea dela, eraikuntza mota honek izan ohi duen ohiko egitura baitu, bere arkupe eta balkoi nagusiarekin. Herrigunean, hala ere, pilotalekua topatu ahaliko dugu, frontenis zaleen artean eskualdeko gustukoenetakoa. Eta es-

kuinean, frontoia utzita aldapa malkartsuan gora goazela, herriko ostatuarekin egingo dugu topo, gaur egun itxita dagoena.

Bide malkartsuak, berriro ere, errepide nagusira eramango gaitu. Hau izango dugu kilometro eta erdira geratzen den Leabururaino bidelagun. Inguruko baserrietatik, behien eta oilarren doinuak eta zuhaitzetako adarretan dauden txorien txorrotzioak lagun ditugularik, bagoaz aurrera.

Urrutian, Leaburu begiztatu-ko dugu, eta eskuinera so egin- da, berriz, Ibarra eta Tolosa ikusiko ditugu. Zalantzarik gabe, eskualdean dugun ikuspegi ederrenetarikoa da Belauntzatik Leabururako bide honek eskaintzen duena.

IBILTARI ASKO

Ibiltari askok aukeratzen dute ibilbide hau, ez bakarrik Belauntza eta Leaburuko bizilagunek, asko dira Ibarra eta Tolosan ere ibilbide hau aukeratzen dutenak.

Leaburuko erdigunera herriko auzo berrieneko bidetik ailegatuko gara. Familia bakarreko etxe dotorez osaturiko auzoa da, amaieran plazarako bidexka duena. Plazan, berriz, San Pedro parroki-eliza nabarmen- tzen da. Bitxia da bere kokale- kua, haitz batek babesturiko muinoaz baliatu baitziren eraikitzerakoan. Udaletxea ere to- patuko dugu, ostatua eta pilota- lekua. Itzulerako bidea hartze- ko ordua iritsi da, bide beretik egingo dugu, ikuspegi ederre- kin gozatuz.

Atal hau babesten du.



eizmendi anaiak

kirolak eta armategia

Kalea Berria, 19 Villabona / 943 69 26 23

Uda garaian aisiaz gozatzeko eskaintza zabaldu dute Lizartzan

Uztailean zehar mota ezberdinetako hainbat ekitaldi antolatu ditu udalak haur eta gazteentzat; ostiralero film bat ere proiektatzen ari dira zimitorioan

Irati Saizar Artola Lizartza

Udaleku irekiak bertan behera geratu dira aurten Lizartzan, baina herriko haur eta gaztetxoek ekintzarik gabe ez ditu utzi nahi udalak. Horretarako, mota ezberdineko ekitaldiak antolatu dituzte uztaile guztian zehar egiteko. Dagoeneko, egin dituzte hainbat, besteak beste, mendi irteera Gaztelu, Orea eta Basabetik barrena, *multikirolak* deituriko ekimena edota *Anitzak, aske eta harro!*.

Gaur beste ekitaldi bat izango dute. 2014tik 2018ra jaiotakoek ohe elastikoetan ibiltzeko aukera izango dute 11:00etatik 13:00etara bitartean. Hori bai, haurrak heldu baten ardurapean egon beharko dutela eskatu du udalak.

Uztaila osoan, beste hainbat ekitaldi ere antolatu ditu udalak haur eta gaztetxoentzat. Parte hartu ahal izateko, ordeza, izena eman beharko da aurretik ekimen bakoitzean. Udal bulegoetan apuntatu daiteke, edo bestela 943 670 700 zenbakira deitu edo *lizartza@lizartza.eus* helbidera idatzi beharko da.

Haur eta gazte bakoitzak bere musukoa eraman beharko du ekimen bakoitzera, eta saioetan 1,5 metroko distantzia mantendu beharko dute. Parte hartzaile-



Pasa den astean 'multikirolak' egin zituzten gaztetxoek pilotalekuan. ATARIA

en ardura duten helduei beteko den protokoloaren berri emango zaie, eta baimen bat sinatu beharko dute.

ZINEA AIRE LIBREAN

Helduentzat ere bada aisiarako aukera. Zinea Kanean ekimena jarri dute martxan: ostiralero, eliz zimitorioan pelikula bat proiektatzen dute. Esaterako, bihar, 22:15ean *Errementari* filma ikusteko aukera izango da, eta uztailaren 24an, ordu berean, *Zipi&Zape eta kaniken kluba* proiektatuko dute.

Herritarren segurtasuna bermatu dadin, udalak hainbat neurri hartu ditu. Besteak beste, musukoa eramatea beharrezkoa izango da.

EGITARAUA

Uztailak 20

Arrolara irteera. 10:00–13:00.
2014–2018 urte artean jaioak.

Uztailak 21

Akelarre. 19:30–22:00.
2009–2013 urte artean jaioak.

Uztailak 27

Ipuin kontaketa. 17:00–18:00.
2014–2018 urte artean jaioak.

Uztailak 28

Holi: koloreen festa. 11:00–13:00.
2009–2013 urte artean jaioak.

Uztailak 29

Kluedoa. 22:00.
2005–2008 urte artean jaioak.

Alurr dantza taldeak matrikulatzeko epea zabaldu du irailera arte

Irailaren 28a bitarte aukera izango da matrikulazioa egiteko; ikasturte berria, urrian hasi ordez, irailean hasiko da

I.S.A. Ibarra

Urte berezia izatera zihoan aurtengo Alurr dantza taldearentzat. 25. urteurreneko ospakizuna prestatzen ari ziren, baina, osasun egoera medio, atzeratu egin behar izan dute. Hala ere, hurrengo ikasturteari begira jarriak dira jada. Zabalik da dagoeneko matrikulatzeko epea irailaren 28a bitarte. Matrikulazio orria *alurr.eus* webgunean edota Ibarra Kultur Etxean eskura daiteke.

Egoera ekonomiko zaurgarrian dauden familiak kontuan hartu ditu Alurrek: epeka edota beranduago ordaintzeko aukera emango diete. Horretarako, aurrez jakinaraziko dute.

Bestalde, datorren ikasturte urrian hasi ordez, irailean hastea erabaki dute. Horrela, amaitu berri den ikasturtean sortutako klase orduen desoreka leundu nahi dute. Beraz, gazte eta helduek irailaren 14an ekingo diete klaseei, eta haurren kasuan irailaren 28an hasiko dira.

Orain arte bezala, haur, nerabe, gazte eta balletoko taldeak osatzera bidean jarri dute martxan matrikulazioa. Baina helduek eta ikasle ohiek ere izango dute aukera.

Azkenik, dantza taldekoek gogorazi dute oraindik 25. urteurrenaren barruan jarraitzen dutela, beraz, ospakizunak zutik jarraitzen duela.

Larunbatera bitarte itxita egongo da Lizartzako pilotalekua

LIZARTZA // Astelehenean hasi ziren txukunketa lanak egiten Lizartzako Aztinondo pilotalekuan. Udalak azaldu duenez, txukunketa lanez gain, pintaketa lanak ere egingo dituzte egun hauetan zehar. Hori horrela, larunbatera bitarte itxita mantendu beharko dutela aurreikusi dute. Lan horiek sortu ditzaketen eragozpenengatik barkamena eskatu nahi izan die udalak herritarrei.

Edukiontziak berriro ere zabalik jarri dituzte Ibarra

IBARRA // Alarma egoerak iraun duen bitartean irekita eduki dituzte errefusaren eta organikoaren edukiontziak Ibarra. Alarma egoera amaitzean, berriro ere txartel bidez ireki ahal izateko sistema jarri zuten abian, edukiontziak itxiz, baina, egoeraren garapena ikusita eta herritarren eskaerei erantzunez, berriro edukiontziak zabalik uzteko erabakia hartzea «beharrezkoa» dela ikusi du udalak.

Herritarren boluntario sarea berrantolatu nahi dute Ibarra

IBARRA // Uztailaren 21erako bileratik deitu du Ibarra Udalak, «etor daitekeenaren aurrean prest egoteko». Pandemia hasi zenean 50 boluntario inguruk sarea osatu zuten herritarren beharrei erantzuteko. Etor daitekeenagatik kezkatuta, dinamika hori berrikusi nahi dute, hurrengo asteartean, 19:00etan, kultur etxean egingo den bileran. Herritarrak eta eragileak gonbidatu dituzte.

Hilberriak eta urteurrenak



Miguel Arbizu Cabadas

Uztailaren 15ean hil zen 69 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian Bego -



Emaztea: Mirentxu Zelaia; seme-alabak: Harkaitz(t), Oihana eta Joseba Iraola; bilobak: Iraitz eta Oier; gurasoak: Martin(t) eta Juanita(t); ezkon gurasoak: Martin(t) eta Piatxo(t); anai-arrebak: Ana M^a eta Manolo Blazquez, Edurne eta Juanito Arbilla; ezkon anai-arrebak: Mari-xabel eta Ramon Soroa(t), Nekane eta Joxe Ramon Begiristain, Joxean eta Maixol Aldalur, Xabier eta Mertxe Arotzena, Mikel eta Bego Balerdi, Ana eta Pello Aiestaran, Kakun eta Inaxio Balerdi; lehengusuak, gainerako ahaideak. Eskerrak Uzturre egoitzako langileei.

Haren arimaren alde, otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte, OSTEGUNEAN arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SANTA MARIA parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
TOLOSAN, 2020ko uztailaren 15e

ataria jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm):	110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 64mm):	160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 64mm):	60 € • Harpidedunentzat 30 € bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Txirrindularien txanda

Jon Irisarri, Eukene Larrarte eta Naia Amondarain lasterketetan parte hartzeko irrikaz daude; hala ere, Irisarrik izan du lehen eragozpena horretarako, estreinako proba bertan behera geratu delako

Imanol Garcia Landa

Txirrindulariak lehiatzen hasteko gogoz daude, lasterketetan parte hartu eta nola erantzuten duten ikusteko. Caja Rural taldeko Jon Irisarri leaburuarrak, ordea, espero baino gehiago itxaron beharko du horretarako, asteburu honetan lasterketa batean parte hartu behar baitzuen Portugalen, baina antolakuntzako kide batek positibo eman du COVID-19an eta bertan behera geratu da. Eneicat Pecafer taldeko Eukene Larrarte tolosarrak eta Sopela Woman's Team taldeko Naia Amondarain ibartarrak Nafarroan izango dute konfinamendu osteko lehen lasterketa.

Irisarrek etsipenez hitz egin du Portugalgo Torres Vedraseko lasterketa bertan behera geratzeaz: «Hasiera batean lau eguneko lasterketa zen. Gero esan ziguten bi egun bakarrik izango zirela. Zerbait gertatzen bazen, ikusten nuen probarik gabe geratuko girela, eta hori izan da, antolakuntzako batek positibo eman omen du, eta bertan behera geratu da. Hemendik aurrera, kezkatuta gaude ez ote diren beste proba batzuk ere bertan behera geratuko». Entrenamenduetan sentsazio onak zituela, eta sasoiaren hartzan ari zirela dio Irisarrik: «Pena da egin dugun esfortzu eta prestakuntza guztia gero ezin dugula erakutsi lasterketan. Dena emanda entrenatu ahal duzu, baina gero ezin baduzu erakutsi hori lasterketa batean... Ni ondo sentitzen nintzen eta parte hartzeak ilusioa egiten zidan».

Larrartek eta Amondaraink Nafarroan egingo dute topo, Emakumeen Nafarroako Klasiakoan. Bi proba dituzte: uztaillaren 23an, Iruñea eta Lekunberri artekoa, eta uztaillaren 24an, Iruñean hasi eta bukatzen dena. Txirrindularitzako bigarren mailan daude bi txirrindularien taldeak, eta proba horietan lehen mailako talde ugari izango dira. Larrartek dagoeneko parte hartu zuen bere talde berriarekin Valentziako Itzulian, otsailean. «Maila altua izango da Nafarroako probetan, nazioarte mailako egutegian lehenak izango direlako geldialdia eta gero», esan du



Naia Amondarain, bere taldearen aurkezpenean. Eskuinean, Jon Irisarri, taldearekin egindako egonaldian. ATARIA



Eukene Larrarte, herenegun arratsaldean, Donostiako belodromoan. ATARIA

Larrartek. «Lehen eguna igotzailentzat da, eta bigarrenetan errazagoa da esprintean bukatzea. Niretzako egokiagoa bigarrena izango da. Hori bai, kontuan hartuta errepidean nire lehenengo urtea dela nazioarte

mailako talde batean, beraz, nire helburua ikastea eta taldeari laguntzea da».

Amondarainek lehen urtea du ere nazioarteko talde batean, eta bere lehen probak izango dira Nafarroakoak: «Nire helburua

ikastea izango da gehienbat, eta baita gozatzea ere, kontuan izanik iaz junior mailan nengoela. Nabarituko dut erritmo aldaketa, eta taldeari ahal dudan moduan lagunduko diot». Hurrengo proba garrantzitsua uztaillaren 26an izango dute bi txirrindulariek, Durango-Durango lasterketa, hain justu.

HURRENGO AUKERAK

Irisarrik hurrengo lasterketa Burgosko Itzulia izango du. Uztaillaren 28an hasiko da eta World Tour mailako taldeek, hau da, txirrindularitzako lehen mailakoek, parte hartuko dute. Caja Rural Continental Profesional mailan dago, hau da, txirrindularitzako bigarren mailan. «Normalean World Tour-eko zenbait talde joaten dira, baina aurten gehiago joango direla espero da. Lasterketa gutxiago izango dira, eta azkenean talde guztiek ahal diren lasterketa gehienak egin nahi dituzte». Beste urtetan baino maila handiagoa izatea espero da, beraz, Burgosko Itzulian. «Guretzako ere ona da», esan du Irisarrik. «World Tourrekoek ez dute aukerarik izan lasterketa asko egiteko, eta beraz lehiaketak ematen duen maila hori har-

tu gabe egongo dira, eta antzeko-agoa izango da txirrindulari guztien maila». Taldearentzat aurtengo lasterketa garrantzitsuenak Espainiako Vuelta izango da, urrian hasi eta azaroan bukatuko dena. «Gure helburu nagusia da eta aurtengorako jaso dugu gonbidapena», zehaztu du.

Amondarainek orain gutxi egonaldia egin du errepideko Espainiako selekzioarekin. «Abso-lutuarekin izan da, hautatzaileen asmoa jende gaztea joatea zelako, taldeko giroa sortzeko berrien eta beteranoen artean», zehaztu du ibartarrak. «Zure erreferentzia den jendearekin egotea oso esperientzia ona izan da». Bere aldetik, Larrarte bi aste barru joango da egonaldia egitera Espainiako selekzioarekin. Bestalde, abuztuaren erdialdean errepideko Espainiako Txapelketan parte hartzeko asmoz daude Larrarte eta Amondarain. Biak 23 urtez azpiko mailan lehiatuko dira.

Pistan ere lehiatuko da aurten Larrarte, Gipuzkoa Ogi Berri taldearekin. Italiara joateko asmoa du hamar egunez, bertako hainbat probatan parte hartzeko. Omnium proban parte hartzeaz gain, taldeko Tania Calvorenkin madison proban ariko da. Espainiako Txapelketan aritu izan dira elkarrekin modalitate horretan, baina lehen aldia izango da nazioarteko proba batean parte hartzen dutena. Irailean izango dute Espainiako Txapelketa, eta bertara joateko asmoa ere badu Amondarainek.

Orain bi aste talde egonaldia egin zuten Caja Ruralekoek. «Sasoi onean nago», esan du Irisarrik. «Ondo entrenatu dut, dena ondo egin ahal izan dut, arazorik gabe. Orain hori lasterketetan erakustea nahiko nuke, baina horretarako lasterketak egin behar dira». Larrartek ere espero du egutegian zehaztutako probak egin ahal izatea: «Nolabait esateko, hori da A plana. Espero dugu, lasterketak bertan behera ez geratzea, eta B planik martxan jarri behar ez izatea». Lehen lasterketetan parte hartzeko gogoz dago Amondarain: «Ikusi nahi dut nola nabilen, eta balioko dit beharrezko indar puntu hori hartzeko».



OSTEGUNA, 2020KO UZTAILAK 16
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Ballarain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



OSTEGUNA 16

AGENDA

Deialdiak

Amasa-Villabona. Howdy-ren musika kontzertua, 20:00etan, Erreboteko plazan, baina eguraldi txarra egingez gero ikastolan izango da.
Tolosa. Orain inoiz baino gehiago, guztion artean Tolosatzen partailetza prozesua, 18:00etatik 20:00etara. Pertsona bakoitzak, bere ekin-tzen bitartez, Tolosa nola suspertu, eraldatu, sustatu eta hobetu deza-keen hausnartzea da saioen helburua. Ekonomia izango da landuko den gaia. Saio presentzialak izango dira, eta beharrezko segurtasun eta prebentzio neurriak hartuta egingo dira. Parte hartu nahi dutenek galde-tegi bat bete beharko dute. Saierei buruzko informazio gehiago nahi duenak Gobernantza sailarekin jarri daiteke harremanetan 010 telefono-nora deituta, gobernantza@tolosa.eus helbidera idatzita edo Whatsapp zerbitzu berria erabilita, 688 768 458 zenbakian.

ATARIA IRRATIA

09:00-12:00. Pasahitza. Denboraldian zehar izan diren kolaboratzaileen tarteen eta elkarriketen aukeraketa.
14:00. Entzuteko jaiak. Musika saioa.
16:00. Zebrabidea. Arrosa sareko irratiaren artean eginiko magazina.
20:00. Kantazgora. Musikarien proposamenekin osatutako saioa.

28 KANALA

OSTEGUNA

11:00. Ezetz asmatu
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
17:00. Adinberri
17:30 / 21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Lehen lerroan (Matilda).
OSTIRALA
11:00. Elkarriketap (Mikel Aramendi)
11:30. Gaurkoan Tolosaldeko
12:30. 1, 2, 3 hemen da Miru!
17:00. Adinberri
17:30. Gaurkoan Tolosaldeko
21:30. Gaurkoan Tolosaldeko
22:00. Urrutiajunbe

FARMAZIAK

Gaur

VILLABONA. Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias. Kale Berria, 34. Telefono zenbakia: 943 69 1130.
TOLOSA. Gauekoa. Lurdes Azpiroz Galartza. Larramendi kalea, 6. Telefono zenbakia: 943 67 5118

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA



Gaur. Zertxobait altxako da eguraldia. Goizean oraindik laino tapaki handia izango dugu eta euri-langar pixka bat ere izango da. Hala ere, eguerdirako erabat ateratuko da. Egunaren bigarren zatian giro argiagoa izango da, ostarte batzuekin. Egunaren amaieran berriz ere estaltzera egingo du, euri-langar pixka bat baztertu gabe. Haizeak iparraldetik joko du eta tenperaturak koskatxo bat gora egingo du 21-22 graduak arte.



Bihar. Giro lasaia, baina ez erabat garbia. Goizean berriz ere hodei tapaki handi xamarra agertuko da, euri-langar pixka bat egitea baztertu gabe. Egurditik aurrera ostarte batzuk eta arratsaldean eguraldi argia izango dugu, nahiz eta, hodei batzuk geratuko diren. Haizeak iparraldetik jotzen jarraituko du eta tenperatura maximoak beste koskatxo bat igoko dira, 22-23 graduak joaz goia.

TOLOSALDEKO ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Adunan hemezortzi urtez egon den Asvinenea Arte Eszenikoen laborategia lekuz aldatu beharrean aurkitu da; larunbatean, 11:00etatik 14:00etara, bertan elkartuko dira agur festa egiteko.

Asvinenearen agurra

Eneritz Maiz Etxarri Aduna

Gutun bidez eman dute ezagutzera Adunan dagoen Asvinenea Arte Eszenikoen laborategiko ardura-dunek atek itxi beharrean direla. Etapa bat fundamentuz iteko aitzakian elkartzera gonbidatu nahi dituzte bertatik pasa direnak. Larunbatean, 11:00etatik 14:00etara izango da agur festa. «Zerbait jan, pasatako garaia gogora ekarri eta espazio honen inguruko anekdotak partekatzea da helburua, momentu on bat igaroz», adierazi dute,

«Hemezortzi urte inguru dira zuotako askoren lana eta ilusioari esker Asvinenea martxan jarri zela», ekarri dute gogora. «Arte eszenikoen laborategi ez ezik, eskualde mailako kultur erreferente eta elkargune ere izan da espazio hau», diote bazkideek. Une zailak ere bizi izan dituzte, «batez ere arlo ekonomikoan, ez baita erraza honelako proiektu batek aurrera egitea erakundeen sostengurik gabe».

Zailtasunak zailtasun, «guztion lana» eskertu nahi izan dute, eta «zuen energiari esker aurrera egin du espazioak eta gaur egun Asvinenea kudeatzen dugunok eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu jaso dugun ondarea esfortzu eta lan ordu askoren emaitza delako».



Zirku tailerra eskaini zuten Asvineneakoek, Gure Zirkuan, Tolosan. ITZEA URKIZU

LEKU ALDAKETA

Apustu berri bat egin nahi izan dute Asvinenearen oinarritzko izaera eta filosofia galdu gabe. Horretarako, lokalaren baldintzak legalizatu behar zituzten, eta ugazabarekin ez dira adostasunera iritsi. Hori horrela, ikasturte berria Zubitxiki poligonoan Zirkuola zirkua eta arte esze-

nikoak euskaraz sustatzen dituen lantegia irekitzeko lanean ari direla jakinarazi dute. Azken hiru urteetan talde pedagogikoan aritu direnek kudeatuko dute: «Hutsune bat sentitzen dugu Asvinenea utzita, baina egoera berrietara moldatu, eta gogotsu gaude espazio berrian arte eszenikoen inguruko lanari ekiteko».



	ATARIKIDEAK	BESTEAK
BOTILA BAT	6 EURO	8 EURO
BI BOTILA	10 EURO	14 EURO

BOTILAK EROSTEKO 943 65 56 95 TELEFONORA DEITU BEHAR DA BULEGORA JOAN BAINO LEHENAGO.

